

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZESTOAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Zestoako Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2017ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin ondoriorik eskuratu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren eta amortizazio metatuaren saldoen gainean; gainera, Kontu Orokorrak ez du kontingentzia baten berri eman, eragina izan lezakeena.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udala kaudimen ekonomikoko egoeran dagoela, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak eta zorpetu beharrik izan gabe –edo are, egungo bolumena murriztuta- etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko berezko baliabideak dituen.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaileak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.

Udalak zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian Udalaren ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege-araudia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren Kontratazioaren atalean (publikotasun eza kontratu baten lizitazioan eta beste baten zatikapena).